



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

HIRI LURREAN, ESPALOI, ETXEETAKO SARRERA, ETXABE ETA OINEZKOEN BIDEETATIK ELURRA KENTZEKO ORDENANTZA

Zioen adierazpena.

Oinezkoek kaleetatik ibiltzeko arazorik izan ez zezaten, Udalerrian kaleak garbitzeko ohitura egon da betidanik. Hori lortu bada bizilagun guztiek beren etxe edo jabegoen inguruak garbitzeko elkarrekin egin duten lanari esker izan da.

Halere, azkenengo aldi honetan, elurteak zirela eta arazoak egon direnean ez zaio jokabide horri eutsi eta ardura hori zerbitzu publikoen esku utzi dute.

Erakundeek lan hori egin ezin dutenez, arau hau onartu egin da, espaloi eta oinezkoen bideetatik ibili ahal izango dela bermatzeko. Kontutan izanik bizilagunek kaleak garbitzeko ohitura izan dutela.

Kontutan izanik Erakundeek ezin dutela lan hori egin eta gainera hori ez dela soluziorik egokiena.

Kontutan izanik lan hauek elkarrekin egiteak herritarrengan eragin positiboa izan dezakeela.

Kontutan izanik lan hauek premiazkoak eta Udalerri osoan une berean egin beharrekoak direla.

Udal honek honako arau hauek onartzen ditu:

A. Bizilagunek hiri-lurreko espaloi, etxe eta garajeetako sarrera eta oinezkoen bideetatik elurra kentzeko lanetan parte hatu beharko dute nahitaez.

B. Betebehar honek ondoko pertsona fisiko eta juridikoetan izango du eragina, lehentasunezko hurrenkera hauxe delarik:

1. Etxabeetan kokaturik dauden industria eta merkatal establezimenduen eta beste edozein motako establezimenduen titularrengan.

2. Titularrik egon ezean, etxea okupatzen dutenengan, bai Bizikide Komunitatearen bitartez bai etxean bizi diren guztien elkarlanaren bitartez.

3. Hutsik dauden etxe edo orubeen jabeengan.

4. Eraikin Publikoen titularrak diren Erakundeengan.

D. Espaloiak osorik garbituko dira eta etxe, denda edo garajeetako sarreretan bideak zabalduko dira errepideraino. Bide horiek sarreraren zabalera bera izango dute.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

E. Garbi eduki beharreko tartearen luzera lokal, etxea edo orubearen aurrekaldeak okupatutakoa bera izango da.

F. Betebehar hau betetzen ez bada, Administrazioari dagokion isunaz gain, Udalak hirugarren bati eskaintako zerbitzuengatik onartutako tarifak kobratu ahal izango dio agindutakoa bete behar zuenari.